

AMORIYO MAKURRA

(CAMPOAMOR-ENA)

Penaz beterik il zan Marichu
 bere Joše maiteari
 zorigaiztoan eiñ zizkalako
 oker chiki bat edo bi.
 Ala, Jainkoak purgatoyora
 eraman-azirik sarri
 au esan zion: «barkaziyua
 eska deiozu Jošeri,
 ark ezpadu nai bere partetik
 ez dizut zuri emango.

«Aušen da peza—diyo Marichuk—
 sentitzen detana gaur nik
 gaitz egin niyon arengatikan
 sufritzen orain egonik;
 maitatzen dunak ez du barkatzen
 egiten zaion okerrik
 ta nayago det neretzat arek
 ez izatia kupirik:
 ori litzake siñale Jošek
 maite nauela oraindik.»

Orla pozkiro garra tartian
 Marichu aurkiturikan
 etzuben senti ezeren pozik
 etzuben senti miñikan;
 bañan egun bi pasa ta Joše
 aretzaz kupiturikan,
 egintz char ura ongi ordaindu
 zubela pentsaturikan,
 barkatu zion eta Marichu
 atera zuten andikan.

Jošek barkatu egin ziyola
 jakin da berealaše
 negar ta negar azi zan eta
 ezinda negarrez ase;
 malko mardulak zerizkiyola,
 penaz urtzen, oso triste
 zerura joan zan esanez orla:
 «barkatu egin dit! jene!
 jenago zerbait maita nindun ta
 orain ez nau Jošek maitte!»

EMETERIO ARRESE

